



# Pil-pilean

TURKIDUNA

Soraluzeko hilabeteakaria  
2020ko abendua · 370 alea

SLACKLINE  
BERTIGOAREN  
EDERRA





## PIL-PILEAN 370

2020ko abendua

Azaleko argazkiaren egilea:  
Fernan Oregi.

## Aurkibidea

- 4 **Elkarrizketa** Olga Peláez Conejo
  - 6 **Begira** Slackline Sagar Errekan
  - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
  - 16 **Argazki bidez** Herri txiki, jaialdi handi
  - 20 **Erreportajea** Herriko iturririk garrantzitsuenak
  - 26 **Plazan bazan** Umeendako jolasak
  - 28 **Errezeta**
  - 30 **Kultura** Gabonetako kultura egitaraua
  - 31 **Nondik nora** Jabi Hernandez
  - 32 **Sakonean** Tradizio berria
  - 34 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
  - 3 **Neuretik** Jokin Oregi *Al gara?*
  - 18 **Gutunak** Oier Zubizarreta *Bizi nahi dut*
  - 19 **Zir(r)ika** P.G. *Mendiko txartela*
  - 19 **Puntua** Nerea Isasti *Pandemiaren Gabonak*



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus

**Zuzentzailea**  
Miren Gallastegi

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa**  
Oier Larreategi

**Inprimategia:**  
Gertu Koop.

**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena

**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

**Babesleak**

**GOKI**  
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**SORALUZeko  
UDALA**

# Al gara?



JOKIN OREGI

**B**arre algara. Lagun maiteak. Lagun maiteminak. Jaio berriaren arnas ttipia. Orbela basoan. Kresal usaina. Bertso eder bat. Eskua sorbaldan. Elur maluta zaldiaren bizkarrean. Zerua izarapean. Irribarre konplizeak. Besarkada estua. Egunsentia udaberrian, egunsentia udazkenean eta eguerdiko itzalaren babesa. Suaren beroa, salda badago, txorizo punta bat. Lokatza mendiko botetan. Tximeleta dantza sabelean. Argazki hura. Kantuz barrua libratu beharra. Mendi gaina. Hitzari hitzarekin erantzutea. Sabel naroa, leiho lausoa, errekastoen zipriztina. Aspaldiko lagunaren ahotsa. Semearen sosegua. Amamaren azal lodi biguna. Poz malkoa. Bazkal osteko atsedena. Herria. Ama. Aita. Zu. Berakatz zopa eta Pantera rosa. Antzoki huts baten lilura. Istorio eta kondairak. Ardo kopa bat eta ardo kopa bi. Basurde kumeak errepidea zeharkatzen. Harkaitzaren atze aldea. Hegazti errariak leihoan pausatuta. Janis Joplin, Paolo Sorrentino edo eta Chaplin. Tronpa jiraka esku ahurrean. Baloiari hogeita zazpi ukitu lurrera erori gabe. Hemen gaude, bagara, izan ginen, izango dira. Barraskiloa presarik gabe. Bostekoa eman eta doblea jaso. Ahaztuta zeneukan hori derrepente gogoratzea. Angel Lertxundiri Andu. Amaren bihotzera kuku. Egurrezko txirloak airean. Txurrukan oiloa lumatu. Lagunaren autoan kopilotu. Marrubi jogurta, marrubi txikleka, marrubi marmelada. Marrubi eskukada. Bakearen dantza Arranoan. Urte Berriko itxaropena, Gabon Zaharreko esker ona. Mihia titiburuan. Zakila zurean. Bizkar biluzia, izterrek agerian, poza airean. Irakaspen bat egunero. Beti ikasle. Nola esaten da “jakingo bazenu” frantsesez? Etxea. Etxea epel. Etxea bizileku, musika entzuteko. Lau ahotsetara korua kantari, herria kantari, eskutik helduta, zirkulua osatuz, zirkulu handia, erraldoia, non gure hildakoak ere kantari ari diren...

Testu hau José Jiménez Lozanoren honako poeman oinarrituta dago: *Behe-laino goiztiarrak, arratsalde gorrixkak, urre kolorekoak; gau ñirñirkariak eta sugarra, elurra; kukuaren kanta, txakurren zaunka; ilargi isila, izotz zuri eraikina; mitxoletak, neguko arbola biluzi eta zaharrak laino artean; andre-gizonen begi eta izterren maitasun eta leuntasuna, zilarrezko zaldiarena, ala kaoba kolorekoa; istorio eta kontakizunak, margolanak, eta tailla bat. Hori guztia heriotzarekin ordaindu behar da. Agian ez da horren garestia.*

# "Coaching-aren helburua da barne-egoera positiboak lortzea"

OLGA PELA EZ CONEJO COACH-A

---

## UBANE MADERA

ARGAZKIA: FERNAN OREGI

---

Olga Pelaez Conejok (Soraluze, 1973) Paso a Paso Coaching enpresa sortu zuen 2017an. Pelaez bera Coach-a da, PNL (Programazio Neurolinguistikoa) Adimen Emozionalean formazioduna. Psikologia ikasten ere badihardu.

**Zeini zuzenduta dago Coaching-a?** Norbere bizitzan zerbait aldatzea, hobetzea edo bizi-kalitatea lortzea nahi duen edozeini. 6 urteko umeekin lan egin dut, nerabeekin, helduekin zein nagusiekin. Pertsonen burmuinaren funtzionamendua berbera da. Pertsonen barruko mapara ailegatzeko modua egokitu beharra dago, baina oso igualak eta aldi berean, oso desberdinak gara.

**Zer lantzen du coach batek?** Pertsonari laguntzen dio dagoen lekutik egon nahi duen lekura ailegatzeko. Hori lortzeko garatzen den prozesua da coaching-a.

**Zelan lantzen da?** Gertatzen zaiguna eta mundua, biak ala biak interpretatzen ditugu norbere esperientzien, sinismenen, kulturaren, hezkuntzaren... arabera. PNL-ak ematen dizkigu erremintak gure interpretazioa birprogramatzeko. Adibidez, umetan Gabonak triste bizi izan bagenitu, horrek interpretazio horrekin bat datozen emozio, jarrera, sinismen... jakin batzuk sortu ditu gugan. Pertsona horrek bere betaurrekoak jantzita ikusiko du Gabonekin lotutako edozer. Coaching-aren erreminten bitartez, pertsonari laguntzen zaio interpretazio erreala, gaurkotuago eta ekologikoago bat egiten.

**Zelan egiten du lan coach batek?** Helburua da barne-egoera positiboak lortzea. Coach batek sekula ez dizu esango zer egin behar duzun, norberak aukeratu behar du non nahi duen egon; coach-ak bezeroari lagunduko dio horra ailegatzeko.

**Zelan?** Lortzen badut zure mapan barneratzea, jakitea gauzak zergatik ikusten dituzun ikusten dituzun moduan, ikustea zuretzat zer den garrantzitsua, zer ez... hori guztia nire esperientziak, nire etiketak... zugar sartu barik eta zu etiketatu eta epaitu barik, hortik abiatuta, uler nezake zergatik ikusten dituzun gauzak ikusten dituzun moduan eta

zein den zure galga. Adimen emozionalarekin eta PNLarekin lan eginez, zure interpretazioa aldatu egin dezakegu. Horrek zure pentsamendua aldatuko du, eta, aldi berean, zure emozioa aldatuko du; eta zurekiko kongruenteagoa eta aldi berean positiboan den barne-egoera eragingo du. Barne-egoera hobetzea bestearekiko komunikazioan transmitituko da; horrek feedback positiboak ekarriko dizu, pentsamendu positiboak, barne-egoera positiboak eta emozio positiboak sustatuz. Gu gara gure egoera emozionalen erantzuleak, besteak ez dira horren errudunak. Zerbaitek min egiten badigu, sendatu bako zauriren bat daukagulako da, bestela, besteak ez du guri min egiteko ahalmenik.

**Ze emaitza lortzen duzu?** Pertsona jabetzen denean, bera epaitu barik, laguntzeko nagoela, ikusgarria da hobetzeko eta ikasteko duen gaitasuna, bereziki, umee eta nerabeekin. Gainera, presaka bizi gara eta ez dugu ondokoa entzuteko astirik hartzen, hura epaitu barik. Jendeak horren izugarritzko beharra dauka. Nik ere badut nire coach-a.

**Eskertuko genizkizuke ba aholku batzuk...**

**1.** Resilientzia: geratu eta konpondu. Konturatu pertsona bakoitzak bere mapa duela, eta bestearena dela gurearen desberdina. **2.** Egiten duguna zertarako egiten dugun galdetu. Ez zergatik. Zergatia galdetzeak errudunak eta arrazoiak bilatzera garamatza. Horrek ez du ezer konpontzen. Zertarako galdetzeak, ordea, motiboak bilatzera eta erantzunak lortzera narama. **3.** Intentzio positiboak: Norbaitek nireganako zerbait desatsegina egiten badu, galdetu zure buruari zergatik berarendako zentzua duen egin duenak; ez interpretatu nire aurkako zerbait dela. Sentitzen den emozioaren intentsitatea jaisten laguntzen du. **4.** Kontuz pentsatzen dugunarekin. Gure jarrera da gure pentsamenduaren isla. Norbere burua zaindu eta maitatu. Ez zigortu. **5.** Enpatia: bestearekin konektatzea, haren mapa desberdina dela jakinda. Norberaren maparengandik deskonektatu behar da horretarako.

Agurtu aurretik, jakin-mina dutenei aukera eskaini nahi diet doako kontsulta hitzordua eskatzeko, urtarilaren 9ra arte. (640 516 884)



## Slackline Sagar Errekan

**ARGAZKIA:** FERNAN OREGI

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO

“Burua eta gorputza koordinatuz, jausteari diogun beldurra kontrolatzea eta horrela norbere buruaren mugak gainditzen ahalegintzea” da slackline-a Asier Amutxastegi plazentziatarraren esanetan, “eta noski, ahalegin horretan gozatzea”. Hain zuzen, gozamen hori konpartitzeko eta slack-a kirol moduan aldarrikatzeko sortu dute aurten Asierrek eta beste zale batzuek Slackherria, Euskal Herriko slackzaleen elkarte. Joan zen asteburuan, Sagar Errekako ur-jauzian jarri zuten hitzordua eta bertan praktikatu zuten slackline-a Tolosa, Donostia eta beste herri batzuetatik etorritako dozena erdi bat zaletuk. “Ahalegintzen gara toki ederrak bilatzen eta Sagar Errekako ur-jauzia oso polita da”.







Bizipenak elkarbanatzeko topaketan parte hartu zuten herritarrak.

# Aldaketa txiki askoren olatua

Abenduaren 4an amaitu zen Euskaraldia, eta jasotako testigantzen arabera, aurten ere hizkuntza aldaketa txiki asko eragin dituen olatua izan da.

Jakina da, Euskaraldiaren bigarren edizioak parte-hartze maila handia lortu duela herrian (505 norbanako eta 80 Arigune) nahiz Euskal Herrian (180.000 norbanako eta 25.000 Arigune), baina zailagoa da ariketak herritarren hizkuntza ohituretan izan duen eragina neurtzea. Horren berri adituak emango dute hemendik hilabete batzuetara, bitartean, herrian, Euskaraldiko Batzordeak jasotako testigantzak dira neurgailurik onena.

## Topaketan kontatutakoak

Abenduaren 3an, antzokian antolatuta zuten topaketan, hogeita hamarren bat herritar

batu ziren eta bertan, hainbatek egunotan izandako bizipenak kontatu zituzten. Esaterako, Enkarna Arrizabalagak bere poza azaldu zuen Sopelako bere errainarekin lehen aldiz elkarrizketa osoa euskaraz egin zuelako. Ana Sebalek Bilboko Corte Inglesean izandako esperientziaren berri eman zuen eta Ana Maiztegiak aipatu zuen hezkuntza sailean euskaraz egiteko joera indartsuagoa nabaritu duela.

## Industria arlokoak

Igone Mendizabal Carmelo Mendizabal lantegiko gerenteak kontatu zuen egunotan ahalegindu dela bezero batzuekin euskaraz egiten,

"ahoz eta emalez ere bai. Lehen aldiz emalez bakarren batek idatzi dit euskaraz". Hari horri jarraituz, Veronica Galarraga Fer lantegiko kideak aipatu zuen berak aurten emaleko sinaduran ipini duela 'nirekin euskaraz egin dezakezu' eta harrezkero zenbaitekin euskaraz egiten duela.

## Online helarazitakoak

Egunotan herritarrek online helarazi dituzten beste hainbat bizipenen berri ere eman zuten: Euskaltelen euskaraz arta zezaten lortzeko hainbat aldiz deitu behar izan duen herritarrarena, orain arte erdaraz egin dioten hainbat bezero egunotan lehen aldiz euskaraz egin diotelako "sorpresa onak" hartu dituen merkatariaarena eta abar.

## Sarituak

Boluntario edo testigantza emaleen artean (63), opariak zozkatu dira. Hauek dira irabazleak: Josune Unamuno eta Iñaki Gabilondo (Errigorako saskiak); Jon Oñederra, Nuria Larrañaga, Iraitz Ibarzabal eta Ainhoa Zubizarreta (Euskaraldiko materiala).

**TESTIGANTZEK  
ERAKUSTEN DUTE  
EUSKARALDIAK  
HERRITARRENGAN IZAN  
DUEN ERAGINA**




# Tokikom Sariak banatu dituzte

Toki komunikabideen lana aldarrikatzeko eta gizarteratzeko sariketak bosgarren edizioa egin du, testuinguru berezira egokituta.

Tokikomek, Pil-pilean partaide den Euskarazko Tokiko Komunikabideen Bateraguneak, Tokikom Sariak banatu ditu aurten ere, euskarazko toki komunikabideen lanaren bikaintasuna aldarrikatzeko eta gizarteratzeko asmoz.

## Lau sari

Epaimahaia hiru sari eman ditu: urteko azalik onena, Debagoieneko Puntua astekariari, Suizidioa



#Bertsovid-19 da saridunetako bat.

izenburupean argitaratutako lan grafikoarengatik; edukirik onena, Durangaldeko Anboto astekariari, Zaldibarko zabortegiari eskainitako erreportajearengatik; eta ikus-entzunezkorik onena Erlo telebistak eta Baleike aldizkariak sortutako Marea errotaren arrastoaren bila ikus-entzunezkoarengatik. Horrez gain, aurten komunitatearen saria ere banatu dute, publikoak bozketa bidez aukeratu duena. Sari hori Andoaingo Aiurri komunikabidearendako izan da, konfinamendu garaian abiatu zuten #Bertsovid-19 izeneko bertso katearengatik. Bertso kate hori, Sorluzera ere heldu zen eta Plaentxia.eus-ek ehunetik gora herritarren bertsoak jaso zituen. Tokikomek parte hartzaile guztiak zoriondu ditu.

*Sukalitatea*

## TXURRUKA Jatetxea

--- GABONETAKO JAKIAK ---

Txurrukan prestatutako 16 jaki abenduaren 24ko eta 31ko jatorduetarako.

Jaso janaria Txurrukan (12:00-14:00) edo zeure etxean.

Eskariak egiteko azken eguna: abenduak 20.



## GAZTELUPE *taberna*

Gabonetan, oparitu Txurruka-Gaztelupe  
EROSKETA BONOAK  
30€ edo 50€  
Abenduaren 19 arte, %10eko deskontuarekin

Informazioa eta eskariak: 654206420 edo Gaztelupen

# Errespetuz jokatzeko eskea

Frontoira ematen duen etxeko bizilagunek salatu dute azkenaldian errespetu bako jarrera dutela frontoiaren hainbat erabiltzailek

Santa Ana 15eko bizilagunek kezka bizi dute frontoiaren hainbat erabiltzaileren ondorioz, (edo frontoiaren erabilerak eraginda) azken boladan bizi duten egoera.

## Bizilagunari biraoak eta beste

Etxe horren alde batek Santa Ana kalera ematen du eta beste aldeak, frontoira.

Frontoian, noski, umeak eta gazteak ibiltzen dira jolasean, batik bat, baloiarekin. 15. atariko komunitatekoek

kontatu dutenez, noizean behin, baloiak ihes egin eta kalteren bat eragin izan du, batez ere, etxe horren beheko solairuan. Kontatu dutenez, hiru bider apurtu dizkiote leiho-ateak, baita loreontziren bat zein beste ere.

Baina gaineratu dutenez, okerrera da, azkenaldian, bizilagun hori leihora gertakariren batengatik arreta deitzera irten izan denean, biraoak esan izan dizkiotela eta baita baloia bota ere.

## Udala jakinaren gainean

Hain justu, azkenaldiko jarrera horiek sortu dute Santa Ana 15eko auzotarren arteko kezka: “Ulertzen dugu umeek jolasteko duten eskubidea, noski. Eta badakigu noiz edo noiz gerta daitezkeela nahi barik egindakoak. Baina egindakoak onartu eta sikiera errespetuz joka dezatela eskatu nahiko genieke”.

Gaineratu dute Udala gertatutakoen jakinaren gainean dagoela eta, are gehiago, azken egunotan, gaia zelanbait konpondu dezan eskatzeko eskaera zuzena aurkeztu diotela.

Bestalde, frontoian ibiltzen diren umeen eta gazteen gurasoei eskatu nahi diete bizilagunen kezka seme-alabei zuzenean helaraz diezaietela.



Atzo, eguena, 3 urteko ikasleak parkea garbitzen.

baina jabetu dira jolaserako gero eta elementu gutxiago dituela eta garbiketa behar duela. Hori ikusita, erabaki zuten, 5 urtekoek proposatuta, eurak arduratzea parkea itxuratzeaz.

## Garbitzen

5 urtekoen proposamena onartu eta 3 eta 4 urteko ikasleek parkearen egoeraren diagnostikoa egin dute: zer falta den, zer dagoen txarto... Ondoren, etxetik lanerako tresnak eraman dituzte. Aste honetan, Belaitzen tresna berriak erosi dituzte eta atzo, eguena, parkera joan ziren hasierako garbiketa-lanak egitera. Helburua da guztia txukun lagatzea eta falta diren jolaserako elementuak berriro ere ipintzea.

# Estaziñoko parkea txukuntzen

Azken asteotan, Plaentxi Herri Eskolako Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko ikasleek

Estaziñoko parkea langai dute proiektu modura. Askok erabiltzen dute parke hura,

# Tripontziaren boletoa salgai

Gure Eskuren urteberriko sariak 52.000 euro zozkatuko ditu. Boletoak herrian ere jarri dituzte salgai.

Gure Esku dinamikak Tripontzia zozketa antolatu du Gabon sasoiaren bueltan. Guztira, 52.000 euro banatuko dituzte saritan. Emaizta urtarrilaren 18an jakinaraziko dute. Bitartean, boletoak salgai daude (5 eurotan) herriko hainbat saltokitan: Gaztelupe tabernan, Marimar harategian, Txurritxu gozotegian eta Txurruka jatetxean. Bestalde, aipagarria da, aurtan, zozketaren bitartez lortzen diren irabazien zati bat euskal kulturagintzako proiektu bat laguntzera bideratuko dela.

## Mahaia kalean

Bariku honetan, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara, Soraluzeko Gure Eskuk Tripontziaren boletoa



Tripontziaren boletoa

saltzeko mahaia jarriko du Plaza Barrixan. Horrekin batera, erreferendumaren aldeko sinadurak jaso eta materiala ere salduko dute. Gainera, aurreko urteetan arrakasta handia izan duen urdaiazpikoaren porra ere egingo dute. Porra horretan batutako dirua Soraluzeko Gure Eskuren jarduna finantziatzeko erabiliko da.

## Danobaten lehiaketako sariak

DanobatGroup kooperatiba taldeak banatu ditu euskararen egunaren harira Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia lelopean antolatu zuen lehiaketako sariak. Sarituak Azkoitiko Jaione Aranguren eta Alegria Dulantziko Irune Lopez izan dira eta bakoitzak Errigoraren saski bat jaso du. DanobatGroup kooperatibak euskara plana du martxan.



Azkoitiko Jaione Aranguren. DANOBAT

## Presoen eskubideen aldeko manifestazioa herriz herri egingo dute

Aurtan, pandemia dela eta, urte hasieran Bilbon egin ohi den manifestazioa herriz herriz egitea erabaki du Sarek. Bidea gara lelopean, urtarrilaren 9an egingo dituzte mobilizazioak, aurreko urteetako ordu berean (17:30ean) eta "segurtasunerako neurri guztiak errespetatuta". Soraluzeko Sarek Plaza Zaharrera deituko ditu

herriarrak eta bertatik abiatuko du herriko mobilizazioa. Bertan, presoei aplikatzen zaien salbuespeneko legedia amaitzeko eskatuko dute.

**Abenduaren 31n, kontzentrazioa** Aurretik, abenduaren 31n, Sarek kontzentrazioa egingo du Plaza Barrixan, arratsaldeko 19:30ean.



## Toponimoen mapa berritua

Udalak Soraluzeko Toponimoen mapa berritua aurkeztu zuen. Jon Basauri eta Javier Elorza ikertzaileek egin zuten lan nagusia; aholkulari izan zuten Jose Luis Ugarte Jaurlaritzako teknikaria eta Euskaltzaindiako Mikel Gorrotzategik ere parte hartu zuen lanean. 2009an argitaratu zen azkenekoz toponimoen mapa; hark baino 500 leku-izen gehiago ditu berriak.



## Zaldibarko luiziarekin kezka

Zaldibarko zabortegiko luizia gertatu zen. Inguruko herrietan bezala, Soraluzen ere kezka eragin zuen ondorengo egunetan bertatik irteten zen keak eta horrek inguruetako aire kalitatean izango zuen eraginak. Erakundeek, ordea, ez zuten eremu gorrian sartu. Bestalde, lau urteko jardunaren ondoren, bere ibilbidea amaitu egin zuen Korner Morea elkarte transfeministak.

## Erabateko konfinamendua

Espainiako Gobernuak Alarma egoera dekretatu zuen COVID-19aren pandemiarengatik. Eskolak itxi ziren, parkeak, tabernak, anbulatorioak... Askok telematikoki jardun zuen lanean, beste asko ERTEan sartu ziren edo langabezian geratu. Kalera irtetea galarazi zuten, errekaduetara ez ezik. Kaleak hutsik geratu ziren, herritarrak, berriz, etxeetako leihoetan eta balkoietan.



## Pandemiara egokitzen

Ohiko bizimodua aldatzen joan zen. Apirillean "estreinatu" ziren saltokietara sartu aurreko ilarak; maskarak, eskularruak koronabirusaren kutsatze-datuei etengabe begira egotea; boluntariotza-sarearen sorrera; herritar askoren musu-truk egindako lana eta online zerbitzuak: hezkuntza, kultura ekimenak, gimnasia saioak, ludotekakoak... Umeei kalera irteteko baimena eman zieten.



## Neurriak arintzen, baina mugatuta

Egoera "normaltzen" hasi zen. Paseoak ematea eta kirola egitea baimendu zuten; baita herrien arteko mugikortasuna ere, mugekin; hala ere, 5.000tik gorako herrietan mugikortasunerako ordutegiak zehaztu zituzten; hileta elizkizunak egiten hasi ziren; lehen terrazak ipini zituzten; tabernak zabaltzen hasi ziren; hilerria ere bai; liburutegia zerbitzua eskaintzen hasi zen...

## Deseskalatzearen hirugarren fasea

Deseskalatzearen hirugarren fasea onartu zen. EAEko mugikortasun mugak ezabatu egin zituzten, umeen parkeak zabaltu zituzten, hainbat zerbitzu publiko ere bai. Horrez gain, kirol eta kultura jarduerak baimendu zituzten; baita ere, umeendako eta gazteendako aisialdi jarduerak, mugekin. Hauteskundeetarako prozedura abiatu zuten, uztailean begira.



## Kulturaldia, ez jaien alternatiba

Santiago-Santa Ana jaiak bertan behera laga zituzten. Horren lekuan, Kulturaldia antolatu zuten. Bestalde, Udalak aurrekontua berregokitu behar izan zuten, Foru Funtzari 568.000 euro bueltatu behar izan baitzizkion. Kiroldegiko solairu berria, gimnasioa tartean, zabaldu zuten. Eta Gorka Tornos txapeldun izan zen Euskal Herriko Oinez eta Hegan lehiaketan.



## Obrak herriko hiru lekutan

Herriko zirkulazioa berrantolatu zuten, Errabal 10eko etxea botatzeko. Abuztuan bukatu zituzten lanak. Bestalde, bi ikastetxeetan obretan aritu ziren: Plaentxi Herri Ikastetxean patiorako eskailera zaharberritzen eta Institutuan eraikin osoa eta ondoko frontoia zaharberritzen. Uztailean hasi ziren obrak. Bestalde, abuztuan, langabezia %16,22raino handitu zen.



## Ikasturtea normal samar abiatu zen

Ikasgeletara bueltatu ziren ikasleak. Kirol taldeek jarduna abiarazi zuten. Hilabete iraun zuten; urrian seiko taldetara mugatu baitzituzten kirol jarduerak, profesionalak izan ezik. Eskola kirola eten egin zuten urrian. Bestalde, pelikula berria grabatzen hasi ziren: Érase una vez... Euskadi. Itxaropenako taberna itxi egin zuten, bertako kudeatzaileak laga egin zuten eta ez da besterik aurkeztu.



## Haizeteak karpa guztiz apurtu zuten

Berrito ere dekretatu zuten Alarma egoera, sei hilabeterako, baina ez zituzten horren neurri murriztaileak aplikatu. Positibo kopurua handitzen hasi zen, PCR gehiago ere egiten hasi ziren. Bigarren olatuko lehen hildakoa izan zen. Bestelakoen artean, berriz, Olaldea zaharberitzeko Plan Berezia onartu zuten. Haizete gogor batek Plaza Zaharreko karpa guztiz txikitu zuten.



## Euskaraldia gauzatu zen

Gaztañerre bako azaroa izan zen. Azaroaren hasieran berrito ere itxi zituzten ostalaritzako establezimenduak. Bestalde, azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egin zen Euskaraldia. 505 plazentziatarrek parte hartu zuten. Baita 3 enpresak, 22 komertzioak eta 7 elkarterek ere. Bestalde, azaroko azken bi asteburutan Blues Hotsak Jaialdia gauzatu zen, arrakasta handiarekin.



## Institutua zaharberrituta

Nurri murriztaileak arintzen hasi ziren; besteak beste, tabernei zabaltzeko baimena eman zieten eta herrien arteko mugikortasuna baimendu zuten. Bestalde, SAPAko proiektua garatzen hasteko 30.000 euro pasako dirulaguntza iragarri zuen Diputazioak. Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburua Institutuan izan zen, zaharberitze-lanak ikusten.



# Herri txiki, jaialdi handi

**ARGAZKIAK:** FERNAN OREGI. **TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO.

Musika ona, sarrerak agortuta, musikariak eta ikusleak gustura... Blues Hotsak jaialdiaren bigarren edizioak zapore gozoa laga die parte hartu duten guztiei.

Jaialdia antolatu duten Errabal Jazz elkarteko ordezkariak ere gustura agertu dira eta jaialdiaren hainbat lorpen nabarmendu dituzte: "Musikarien maila artistiko eztabaida-ezina, emakumeen partaidetza kalitatezko eta indartsua; mikrofonoan ingelesa, gaztelania eta euskara entzuteko parada; entzuleen jarrera errespetuzkoa, jakin-minez betea, eta egoerak lagatzen zuen neurriraino, parte-hartzailea; antolatzaile eta babesleen arteko armonia... Soraluzen, beste askotan bezala, guztion artean beste mugarri bat ezarri dugu antolaketan, partaidetzan eta gozamenean: herri txikian, gauza handiak".







## GUTUNAK

### Bizi nahi dut

#### OIER ZUBIZARRETA

Bizi nahi dut, maite ditudanekin egon nahi dut, besarkatu eta musukatu nahi ditut, libre arnastu nahi dut, lan egin nahi dut, umeak musukorik gabe kalean ikusi nahi ditut. Hori dena nahi dudalako egoista eta insolidarioa naizela esango duzue, eta bai egoista naiz, beti izan naiz. Heriotza eta gaixotasuna guretik urrun egon diren bitartean ez dugu ezer egin, eta orain gurera, pertsona zuri eta burgesengana iritsi denean, beldurtu eta bizitza gelditu nahi dugu.

Birus baten aitzakiaz estatuak, politikari eta komunikabide guztien laguntzaz, beldurra sartu ta bizitza mugatu digu. Iritzi desberdina duen eta eztabaida erreal baten alde

dagoen pertsona oro zigortu, zentsuratu eta ridikulizatu dituzte, negazionista, ultraeskuindar, lejia edale, trumpista eta beste hainbat izen jarriz. Ni horietako bat naiz, eta ez dut lejia edaten, ez dut gaixotasuna ez dagoenik esaten..Ni ez nago ados hartu diren neurriekin, neurri totalitarioak eta bizitzaren aurkakoak direla uste dut.

Bizitzeko aukera egin dugunok horretarako aukera izan beharko genukeela uste dut, arrisku altuko pertsonak, zaintza nahi dutenak eta zaurgarrienak zainduz. Great barringtoneko adierazpenean dioten bidetik

“Heriotza arrisku minimoan daudenei bizitza normaltasunez bizitzeko aukera ematea, infekzio naturalaren bidez birusaren immunitatea eraiki dezaten, arrisku altuena

dutenak hobeto babesten ditugun bitartean”.<https://gbdeclaration.org/great-barrington-declaration-basque/>.

Datu, informazio eta eztabaida erreal baten beharra dugula deritzot, medikuntza ofizial eta ez ofizialeko profesionalak, zaintzaz arduratzen diren pertsonak, irakasleak, guztiok. Mahai inguruan jarri ta gure bizitzen nondik norakoak erabaki, gure bizitza eta osasuna inoren esku utzi gabe.

Gure bide propioa eraiki behar dugu, konfrontazio ta kritika jokoan erori gabe. Ez gaitzaten elkarren kontra jarri, ez dezaten gure energia erabili beren burua indartzeko.

Goazen denontzako bizi baldintza duinak sortzera, maitasunez, elkar zainduz, lasaitasunez eta zorientasunez.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: [aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus)

## HAUSNARKETA

### Edaten duzu mendiko ura duten iturrietatik?

Mendiko iturburuetako ura duten iturrietan, legezko parametroak ez dituztela betetzen adierazi behar da; *Ur ez edangarria* ipintzen du hemengoetan eta askok ez dute haietatik edaten



ELOI BOLUNBURU

"Egunero hartzen dut Atxuriko iturritik, kristalezko botiletan. Edateko eta sukaldarako. Umetan ere bai eta sekula ez dit kalterik egin. Batzuetan ilunago dator, hori bai. Baina etxeko iturrikoak kloroa du eta nire ustez, txarragoa da. Nik iturriko letretoa aldatu egingo nuke".



ERIK DESSERT

"Ta egunero nator Araneko iturrira. Edateko ura hartzen dut pitxarrean eta etxean kristalezko botiletan gorde. Txorroko ura kloroz beteta dago eta gorputzarendako ez da ona. Soraluzen bizi garenetik edaten dugu hau, orain dela 30 urte, eta ez digu sekula kalterik egin".

## ZIR(R)IKA

MENDIKO TXARTELA P.G.



## PUNTUA



NEREA ISASTI

## Pandemiaren Gabonak

**U**rtea amaitzeko azken txanpa geratzen da. Urte gogorra izan da. Amesgaiztoa. Hilkortasun tasa altua, altuegia. Baita kutsatzeak ere. Baina maiatzaz geroztik, etxeko konfinamendua baztertua dago. Gure lurraldeko agintariak birusaren eta ekonomiaren arteko oreka ia ezinezko bat mantentzea erabaki zuten aspaldi, erantzukizuna guregan utziz. Eta uda ostean intzidentziak gora egitearen errua norena da? Herritarrona soilik?

Azken hilabetean, itxura denez, intzidentzia jaitsi egin da. Gabonek dakartzaten irabaziak salbatzeko neurri zorrotzak ezarri ondoren. Neurri horien artean, tabernak eta jatetxeak ixtea. Tira, kutsakortasun altuena tabernetan dagoela ziurtatu digute. Ez lanean, ja!, ezta denda eta gunekomertzial handietan sortzen diren jende pilaketetan.

Hortaz, intzidentzia jaitsi denez, berriz ere tabernak eta jatetxeak zabaltzeko baimena emango dute, baita senide edo 'gertukoak' ikustera joateko baimena. Zergatik ematen dute hori guztia egiteko askatasuna, baina era berean etxe berekoak soilik biltzea aholkatu? Nork kontrolatuko du arauak beteko ditugula? Hain garrantzitsuak dira Gabonak? Eta Gabon ostean, zer? Eta Aste Santuan?

Nik argi daukat nola jokatu behar dudana. Zuek?



AIORA ELIZBURU

"Ez dut edaten iturrietako urik, ez mendietako ura dutenena eta ezta besteena ere. Ez dut ohiturarik. Normalean, umeez ura eskatzen badidate, erosi egiten diet, ez diet esaten iturrira joateko. Pitxarrekin iturrira joate hori nik ez dut ezagutu".



OINATZE SILBETI


"Egunero betetzen dut kantinplora Plaza Berrikoan, bete eta edan. Badakit ur hori tratatu gabea dela, baina iruditzen zait askoz ere naturalagoa dela. Sekula ere ez dit kalterik egin; nire umeez ere hori edaten dute eta ederki daude".



# Herriko iturririk garrantzitsuena

2021ean, 190 urte beteko dira Plaza Berriko iturria eraiki zutela. 1831ko urtarrilean erabaki zuten herriko iturri berrirako ura menditik, Ipiñarrietako iturburutik, ekartzea, kalean "ur gutxi" zegoelako eta zeudenak "kalitate baxukoak" zirelako. 190 urte geroago, iturriak ura ematen segitzen du, "ur fresko eta gardena", Ramiro Larrañaga historialariak esan zuen moduan.

Testua: **Ubane Madera**. Argazkiak: **Fernan Oregi, Ubane Madera eta Soraluzeko Udala**.



Ubidearen trazadura.

ngeniaritza lan ikusgarria egin zuten Plaza Berriko iturrirako urak ekartzeko. Izan ere, ia kilometro eta erdi egin behar da mendian gora uren iturburura, Ipiñarrietara, ailegatzeko.

Kaleko iturriak bi ziren garai hartan: Aranekoa eta Errekaldekoa. 1830eko udal bileran batean, Ambrosio Maria Aldasoro alkateordeak halaxe esan zuen:

...edateko ur faltak herritarren artean sortutako beharra hain handia izanik, eta kontuan hartuta Arane iturriak oso ur gutxi ematen duela eta Errekaldekoa kalitate oso txarrekoa dela eta, medikuaren esanetan, edanez gero gaixotzeko arriskua dagoela, ona litzateke herriarentzat Ipiñarrieta baserritik gertu dagoen iturburua aprobetxatzea. (Sorapedia)

### Iturburu oparoa

Ondo aztertu zuten Ipiñarrietako iturburua ezer erabakia aurretik, 1830eko abenduaren 23an, honako udal ordezkariak aritu ziren zeregin horretan: Pedro Joaquin de Ciaran (alkateordea), Ambrosio Maria Aldasoro (1830ean foru diputatua ere bazen) eta gainerako udal zinegotziak: Jose Manuel Lascurain, Manuel Eguren, Manuel Lizarriturri, Agustin Luzarriturri, Candido Laskurain eta Antonio Aldazabal. Mariano Jose Laskurain arkitektoa ere bertaratu zen, hasieran hari enkargatu baitzioten azterlana (Sorapedia).

Eskuzko erlojua erabiliz iturburuaren emaria neurtu zuten: orduko 7.800 koartilo. Plaza Berrirainoko distantzia, berriz, 4.797 oin lineal. Javier Elortza Soraluzeko historialariaren arabera "oraingo

**DATOZEN ORRIETAN  
MENDIKO URA DUTEN  
ETA HAINBATEK  
ERABILTZEN DITUZTEN  
ITURRI BATZUK**

### Pitxarrekin iturrietara

Herrian ohitura izan da etxeetatik zein lantegietatik iturrietara ur bila joatea, ur horien potabilitate (edangarritasun) propietate ezin hobeengatik. Pitxarrak zein gantxillak betetzeko ilara egiten zuten batzuetan. 1958ko *The National Geographic Magazine* aldizkarian Soraluzeke urei buruzko artikulua argitaratu zen. (Soraluze-Placencia de las Armas- Monografía Histórica, Ramiro Larrañaga).

neurrietara ekarrira, minutuko 67 litro ur, segundoko litro pasatxo ur eta distantzia 1.366 metro”.

### Ubidea, hiru biltegi eta akueduktua

Iturburu oparoa zela eta bertako urak kalitate onekoak zirela egiaztatuta, 1831ko urtarrilaren 9an proiektua onartu zuten. Horren ondoren, maiatzean, urak kalera jaisteko lanei ekin zieten.

Obra handia izan zen hura, mendian barrena, batez beste, metro bateko sakoneran eraiki zuten ubidea, hodi zeramikoekin.

Ubidean hiru biltegi eta akueduktu bat ere eraiki zutela kontatu du Elortza historialariak: "Arkaduzekin (hodi zeramikoekin) egin zuten hoditeria. Teknika hori arabiarrek sartutakoa zen (*al kadus*). Bidean, hiru ur-biltegi egin zituzten: Korta eta Ipiñarrieta bitartean, Uzkatzen (Urruzkaraten) eta Zabaletan. Meritua dute, barrutik oso ondo eginda daude biltegi guztiak. Hargin benetan trebea izan behar zen lan hori egiteko, a hueso teknika erabili baitzuten; hau da, barruko harlauzek ez dute ez masarik ezta beste ezer ere elkarri lotzeko, bata besterekin ajustatuta daude; hala ere, kanpora ez da irteten ur tanta bat bera ere. Hasieran dagoen biltegiari, duela hamarkada batzuetatik hona, Gaztañagako errekastoko urak gehitu zaizkio. Uzkatete biltegiaren inguruan, berriz, harlauzekin egindako galeria bat dago. Ikusgarria. Luzeran 50-60 bat metro ditu. Pertsona bat sartzeko modukoa da. Akueduktua, berriz, Zabaleta baserrira iritsi baino lehenago dago. Oso ikusgarria da, nahiz eta goiko harlauza batzuk kenduta egon. Idarrondoko erreka salbatzeko egin zuten. Arkaduz hoditeria akueduktuaren baztererraino doa; akueduktuak, berriz, gainean kanal bat zuen ura bertatik joan zedin, eta, kanalaren gainean, ura babesteko beste harlandu hiruki batzuk zituen. Akueduktua amaitzean, berriro hasten dira arkaduzak. Handik behera, Boskoiti ondotik dator ura, goiko ikastetxetik zehar, baina horko hoditeria berria da. Hori da aldatu den tarte bakarra. San Andresko errepidea eta Estaziño kaleko ikastetxearen jolastokia eraiki zituztenean. Hortik gorakoa orain dela 190 urte bezala dago. Ubidea zuzen-zuzena da.

### Araneko iturria

Antzinetatik asko estimatu izan da Araneko iturria, bere uren kalitatearengatik. Baltegiatan dago. Hark ere menditik hartzen ditu urak, hortik Iturburu izena ere eman izana. Araneko iturriaren ondoan herriko labaderoetako bat egon zen, herriko zaharrenetakoa, Errekaldeko garbitegiarekin batera. Iturria baino gorago zegoen.



Araneko iturria gaur egun.

Lurperatuta dago dena, batez beste metro batera, eta oraindik martxan dago. Zabaletako ur-biltegia ondoen dagoena da, seguru aski, bertako baserriarrak zainduta. Bestalde, Uzkartetik Ipiñarrietara badaude 500 bat metro, eta nahiz eta urte luze horietan guztietan makina bat lan egin gaineko lurretan, (pinuak sartu, bota...) hura ere hantxe dago”.

### Zerga bereziak, lanak ordaintzeko

Obra handia izan zenez, lanen kostua ere handia izan zen: 86.936 erreal eta 12 marabedikoa. Zaila da hori gaur egungo parametroetara estrapolatzea. Baina obra ordaindu ahal izateko, zerga bereziak ezarri behar izan zituzten: ardo azunbre bakoitzeko bi marabedi, eta okela libra bakoitzeko beste bi.

Iturria eraikitzeko harriak, berriz, Eibartik, Osintxutik, Durangotik eta Oiz menditik ekarri ziren. Hiru txorrotako iturriek kareharrian landutako piloira botatzen dituzte urak. Albo bietako askak, berriz, hareharrian daude landuta.

Udaberrian hasi zituzten lanak, maiatzaren 5ean, eta urriaren 22rako Plaza Berriko iturriak bazuen ura. Gainera, momentu aiposean eraiki zuten iturria; bi urte geroago ezinezkoa izango bailitzateke obra egitea, gerra zibilarengatik eta 1834an egon zen ufal handiarengatik.

### Beste hiru iturriren hornitzailea

Ipiñarrietako iturburu benetan da oparoa. Plaza Berriko iturria ez ezik, beste hiru ere hornitzen ditu.

Plaza Berriko iturri gaineko erregistroan bi toma daude. Haien bitartez, Ipiñarrietako urak Gabolats kaleko iturrira eta Zubi Nagusiko iturrira ere bideratzen dituzte. Horrez gain, 1894an Elizburu kalekoek iturria jarri zuten gurutzearen alboan, etxetik gertu ura izateko. Hura ere hornitzen du Ipiñarrietak.

Bestalde, Plaza Berriko iturriaren alboko asketatik irteten den ura zubiko Labaderora ere eramaten zen (Sorapedia). Gainera, albo bietako askak, Erregetxera armak garraiatzera joaten ziren zaldiek

## Ambrosio Maria Aldasoro

Plaza Berriko iturriarekin zuzenean lotuta dago Ambrosio Maria Aldasoro Lasalderen izena.

1827-1830era bitartean herriko alkate eta foru diputatu izan zen.

Lehenago, Ameriketan egondakoa zen.

Monterreyko (Mexiko)

alkatearen alabekin

ezkondu ondoren,

jaioterrira bueltatu zen

familiarekin. Aldasorok

Ameriketan egindako

diruekin finantzatu zuen

Plaza Berriko iturriaren

obra horretarako diruak

lortu bitartean. Gerora

guztia bueltatu zioten.

Aldasoro berak aurreratu

zuen, baita ere, frontoia

eta labaderoa eraikitzeko

dirua.

## Errekaldeko iturria

1690ean eraiki zuten Errekaldeko iturria. Soraluzeko hiribildua sortu baino lehen, baserriez gain bertako jendea inguruko bi tokitan biltzen zen: Soraluzen eta Herlaegian. Erlaegi (Erlei) errekaen bukaeran. Hain justu, Herlaegiako bizilagunak ur edangarriz hornitzeko eraiki zuten iturria. Gaur egun zale asko dituzte bertako urek.



Errekaldeko iturria gaur egun.

## ERREPORTAJEA

### "AKUEDUKTUA KONPONTZEA LITZATEKE ZAILENA, KOSTU ALDETIK"

### "KLORATU BAKO URAK DIRELA ADIERAZI EGIN BEHAR DA LEGEZ, BAINA BETI EDAN IZAN DUGU UR HORI"

### MENDIETAKO URAK KALERA EKARTZEN DITUZTEN UBIDE GEHIENAK EZ DAUDE ZAINDUTA

zein mandoek bertatik edan zezaten eraiki ziren. Bere sasoian eta urte luzez, Plaza Berrikoa herriko iturririk inportanteena izan zen.

#### Emaria galdu

Gaur egun, ordea, Ipiñarrietako iturburutik edaten duten iturrien emaria ez da horren oparoa. Javier Elortzak esplikatu du arrazoia: "Ipiñarrietako lehenengo ur biltegia apurtzen ari da, gainean pinudi handi bat duelako. Ipiñarrietatik Uzkatete ur biltegirako bidean, berriz, uraren erdia galdu egiten da. Hortaz, Zabaletara askoz ere gutxiago ailegatzen da eta hortik behera gutxiago. San Andresko errepidea egin zenean sartu zen hoditeria, berriz, hala moduz sartu zuten; hala ere, akueduktua konpontzea litzateke zailena, kostu aldetik".

#### Kloratu bakoak

Iturriko uren kalitateari dagokionez, berriz, Plaza Berriko iturriaren ondoko idazkiak dio bertako urak ez direla edangarriak, gaur egungo legeak ezarritako osasun irizpideen arabera kloratu bakoak direlako eta kloratuta dagoen ura bakarrik kontsideratzen da ur edangarria.

Idazki bera azaltzen da (kenduta ez dagoen kasuetan) ura mendiko iturburuetatik jasotzen duten Soraluzeko iturri guztietan. Bestelako udalerririk batzuetan, berriz, ez edangarria barik, tratatu bako ura dela adierazten dute, Bergaran, adibidez. Bertako Udaletik azaldu dutenez, ur horiek kloratu bakoak dira eta hori adierazi egin beharra dago legearen arabera, baina beti edan izan da halakoetatik. Beraz, tratatu gabeko ura dela adieraztea "zehatzagoa" dela uste dute.

#### Preziatua, baserrietakoa

Iker Aldazabal alkateak esplikatu du, berriz, urtero Gipuzkoako Ur Konsortzioak herriko iturrien analitika egiten duela. "Beti ematen du kaka hondarrak dituztela: zaldienak, ardiak... Bizi guztian edan izan dugu ur hori. Edatearren ez zaigu ezer larririk gertatuko, asko

## Kanoi Fabrikako iturria

SAParen pabilioien parean dagoen iturria da. Gerra ostean, The Placencia de las Armas Company Limited enpresak Benta-zarra bota zuen, fabrika berriaren aurrean biltegiak egiteko. Inguruan zegoen Ernizketako iturria konpondu zuten eta zuhaitzak sartu ere. Gaur egun, Kanoi fabrikako iturria esaten zaio hari.



Kanoi fabrikako iturria



jota beherakoren bat. Baina administrazio moduan kartela jarri behar dugu ohartarazteko ez dituela bete beharreko parametroak betetzen, erreklamazioren bat baletor".

Ur kloratua ekarri aurretik, ordea, kalitatezko urak mendiko iturburuetakoa ziren. 1826-1829 urteetan Madrilén argitaratutako Diccionario geográfico-estadístico de España y Portugal liburua, Sebastian de Miñanok eginda, esaten du:

*Ur edangarri gozo oparoak ditu, ez herri kaskoan, baina bai baserrietan, bakoitzak bere iturria duela* (Sorapedia).

Baina gaur egun, mendietako urak kalera ekartzen dituzten ubide gehienak ez daude behar bezala babestuta eta zainduta, eta, besteak beste, horren ondorioz uren analisisa egitean azaltzen dira bakteriak, kaka hondarrak eta bestelakoak.

### Balioan jarri nahian

2018an, herriko hiribilduaren 675. urteurrenaren harira, Plaza Berriko iturriari buruzko hainbat ekitaldi egin ziren, iturria balioan jartzeko eta hari buruzko ezagutza herritarren artean zabaltzeko. Javier Elortza historialariak hitzaldia eman zuen (hortik hartu ditugu bere azalpenak) eta bertan Plaza Berriko iturriaren gaineko mapa banatu zuten herritarren artean. Ubidearen trazadura eta elementuak ezagutzeko bisita gidatuak antolatzeke asmoa ere helarazi zen, baina ez zen gauzatu.

### Dirurik ez

Iturriaren oraingo egoerari buruz galdetuta, Iker Aldazabal alkateak esplikatu du gaur egungo Udal Gobernu Udalera sartu zenean, Plaza Berriko iturriak ez zuela urik, ubideko hoditeria zuztarrez beteta baitzegoen. "Lan eta inbertsio batzuk egin ziren. Eskolako patiotik pasatzen da hoditeria eta hori zaharberritu egin zen. Horri esker iturriek ura dute", dio alkateak.

Ipiñarrietatik kalerainoko ubidea konpontzeari buruz galdetuta, berriz, aditzera eman du gaur gaurkoz Soraluze Udalak ez duela dirurik obra hori egiteko.



Arkaduz bat.

**"LAN ETA INBERTSIO  
BATZUK EGIN  
ZIREN (...) HORRI  
ESKER ITURRIEK URA  
DUTE"**

## Ospital iturria


Sagarraga etxeari Nafarranekua ere esaten zitzaion. Nafarrieriarekin (biruela) lotura izan dezake. Sagarraga herri kanpoan baina herriatik gertu zegoenez, aproposa zen ospitale moduan erabiltzeko gaixotasun kutsakorrek zirenean. Hortik *Ospital iturri*. 60ko hamarkadan, Soraluze Kirol Bazkunak iturria berritu zuen, egitura mantenduz eta aterpe ederra gehituta.



Ospital iturri.

# itzala

"Ibeltzeko hotzak leizera daramatza hartzak" dio esaera zaharrak, eta hartz honek ere bide hori bera hartu duela dirudi. Aurki ezazu bere itzal ona, alboko zortzi hauen artean.



# Hara!



Bai bitxia gure hizkuntza. Hiru elementu hauek izen bera dute, aizul **Zer dira?** Ipini hemen.








Lauki bakoitzeko hizki bana idatzi behar duzu. Hemen pista batzuk, lagungarri:

- Azkena, bat baino gehiago direla adierazteko da.
- Lehen hizkia ez dugu normalki ahoskatzen.
- Bigarrena eta seigarrena bokalak dira eta berdinak dira.
- Laugarrena bokala da, baina ez da bigarren eta seigarren laukikoa bezalakoa, ezta O, edo E ere.
- Bosgarrena sudurkaria da. Ez da Ñ, baina ia-ia.
- Hirugarrena, "gu" hitzan aurkituko duzu.

ETA NIK NOLA JAKINGO DUT HORI!!



# NON da Faltsua?

TTIPI-TTAPAKo irakurle batek oso ondo esan zigun behin: Elur malutak izotz-prismez osatuta daude, eta ezberdinak diren arren, ezaugarri bat eta bera dute, hexagonoak dira, sei adar dituzte beti. Aurki itzazu izotz-prisma faltsua (zazpi adar dituena) eta izotz-prisma bikoiztua.



# Marraztu

Urtarrila edo negua gogorarazten dizun zerbait.

# Engainariak

Txatal edo puska hauetatik erdiak iruditik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



# Labirintoa

sekuentzia



Lagundu azerikumeari azeritegira heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalen. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esatera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tartekak dira.



Idatzi hemen esaldia.



# Gabonetarako ezohiko aperitiboa



**ENARA PARRA LETE**  
ROOTSANDCOOK.ATARIA

Gabonetako aperitibo eta pintxoak liburu elektronikoa argitaratu du Enara Parra Letek. RootsAndCook atari digitalean

zintzilikatu du, edozeinek doan eskuratzeko moduan. Bertako errezetetako bat partekatu du: Itsas urdaiazpikoa.

10 minutuan presta daiteke; baina zerbitzatu baino 10 ordu lehenago. Hori bai, lupia gazitu

daiteke bezperan eta hozkailuan gorde; gero, errezetaren 5. eta 6. pausoak bakarrik egin behar dira. Lupi osoa jan ezean, berriz, xerratu, olioztatu eta hozkailuan gorde daiteke, ontzi itxian, 3-4 egunez.



## Itsas urdaiazpikoa

### Osagaiak (8 zati)

- 300 g lupi, trontzoa garbi duela eta azalarekin
- 1 kg gatz lodi
- 50 g azukre (aukeran)
- 2 limaren birrindura
- Limoi baten birrindura
- 8 almendra, xerratuta eta txigortuta
- 4-5 mahats-ale gozo, pipita gabe
- Oliba olio

### Prestaketa

- 1. Ontzi handi batean nahastu behar dira gatza, azukrea eta limen eta limoiaren birrindurak.
- 2. Ontzi ertain batean gatz nahasketaren erdia gehitu.
- 3. Ipin ezazu lupiaren trontza ganean, azala behera begira. Estali gainontzeko gatzarekin. Ontzia itxi eta hozkailuan sartu, 10 orduz.
- 4. Atera lupia gatzetatik. Garbitu urarekin, gatza kentzeko eta ondo sikatu.
- 5. Aizto zorrotz bat erabili, xerra finetan zatitu, urdaiazpikoa balitz. Ez moztu azala, ez baita jaten.
- 6. Platerean jarri, ganean xerratutako mahats zatiak eta txigortutako almendrak ipini. Olio txorota bat bota, limaren birrindura gehiago gehitu eta zerbitzatu.

Zailtasuna: ● ● ● ● ●

**Sorabuzeko Kooperatiba Elkartea**  
150etik zaharkitua

Arraindegia, janaria, erregaia, etako tresnak, etxera eramateko zerbitzua

**Kalebarra 4**  
Tel.: 943 75 13 45

Astelehenetik ostiralera:  
08:30 - 12:30 eta 15:00 - 19:45  
Larunbatak: 08:30 - 13:00

**KLB6**

Kalebarra 6  
943 07 20 28  
kalebar-eta-rentak-modulukoak

BSB *Paqajama* **SOLID** *new balance*

VERO MODA

**MGS Seguros**

Loli Nieves Garcia

Astelehenetik ostiralera:  
09:30 - 12:00 eta 15:30 - 20:00

Santa Ana 13  
Tel. 943 75 14 17

**Kontulan**  
abokatuak

Errenta, altopenak, Administraziozko lanak  
Trafficko buruzkaria, Lan-erleko aholkularitza  
Enpresen kontuzio/ideologiazkoak, Kontabilitatez

Santa Ana 13 - 1. era, 20190 Sorabeze  
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

**ELIZPE HORTZ KLINIKA**

Zura-gentako hortz klinika, punta-puntuko teknologiazko lan egiten dugua. Cati-Cam sistema berentzako erabiltzen dugua.

Elizburu, 3 behea  
SORABUZE  
Tel.: 943 75 25 67  
e-mail: elizpeh@igmail.com

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera  
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00

**Almar**

Ilargipaindegia  
Estetika  
Solortzema

Gabellon 4, Arbuo  
Tel.: 943 75 15 83 - 682 51 14 04

Jatorria plazarra, berentzako zerbitzua

**Batzoki**

egutako menua, azoiburuak, karta eta menuak, ogiatzekoak eta hamburgerak, erikanga berentzako, familia eta lagun erleko berentzako

Dreselak 943 75 20 35

**IZAGUIRRE**  
Igeltzeritza

Erakin berriak • Kalitatezko emaitza  
Erreforma • Era gutxietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913 - 649 867 289

**Txoko**

Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgerak, ogiatzekoak, radiak, pizza, gazaria...

Erlekuak egiten dira  
Tel. 943 75 17 89

**MENDIZABAL**  
okindegia

Ogia - Prentsa - Gosariak

Astelehenetik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00

Larunbatak eta igandeak:  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99

**KM design**

Kirira Muntalar

943 76 00 85

kaumuntalar@ychoo.es  
www.kmdesign.es

Pol. Amilago 3  
BORGAA

- Disainueta Fabrikazio lanak
- Sukaloak
- Homo-arnaldiak
- Zonak
- Atalak...
- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak

**TXURITXU GOZOTEGIA**

Astelehenetik ostiralera:  
08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larunbatak, 08:30-13:30  
Igandeak, 08:30-14:30

Gosariak, oga, gema, pastelak, berentzako...

Etxera eramateko zerbitzua

Tel. 943 75 24 41

**Hortz klinika**

Erreal 1  
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso  
Mediku Estomatologia  
K.Z. 48.000.591

27 urteko esperientzia  
odontologia, protetikak, odontopediatria, ortodontia, implantak, estetika...

Katia Guzmán  
Odontologia  
K.Z. 48.001.541

Zerbitzu radiologiko orokorra (SD):  
eskaneatze, orto eta tele.

**FOGASLER**  
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Sorabeze) - 943 71 82 49 (Oñati)  
fogasleriturgintza@gmail.com

Euskalzaletasunaren alde:

**SOMABE** Supporting your projects

**aras**

**ALBISUA** S.L.

**laibi** ELECTRICIDAD

# Gabonetako kultura egitaraua

Umeendako hiru ekitaldik eta helduentzako musika eta bertso saioek osatuko dute gabonetako kultur eskaintza.

Umeendako hiru ekitaldi daude iragarrita aurtengo Gabon jaietarako: Olentzero eta Mari Dominginen gutun bilketa abenduaren 24an, 10:00etatik aurrera, kiroldegiko frontoian (gonbidapenak Iratxon); Gari Montxo eta Joselontxo pailazoen emanaldia abenduaren 26an, 17:00etan, antzokian eta Kidam magoaren ikuskizuna urtarrilaren 2an, 17:00etan, antzokian.

Helduentzako, berriz, Bertsoa Dihardu jaialdia eta Gospel

emanaldia izango dira aukeran, biak abenduaren 27an. Bertsoak eguerdiko 12:00etan, antzokian (eguraldi ona bada, zubian) eta Gospela arratsaldeko 19:00etan, antzokian.

## Herrian jarritako gaiak

Udazkenean egin den bertso tailerreko partaideek antolatuta dute jaialdia. Tailerreko saio batean Maite Berriozabal gai jartzailearen laguntzaz osatutako gaiak ipiniko ditu Maialen Bergara eibartarrak.

## Durangoko Azoka Iratxon

Zu non, han DA! ekimenaren bidez, aurtengoa Euskal Herrian zehar zabaldu da Durangoko Azoka eta azoka abenduaren 8an amaitu bazen ere, urtarrilaren 8ra bitartean, Durangoko Azokako produktuak eskuratzeko aukera izango da Euskal Herriko 141 liburu-dendatan. Horietako liburu-denda bat Soraluzen dago: Iratxo goxodenda. Bertan eska daitezke aurtengo azokan eskaini diren produktuak (liburuak, diskoak eta aldizkariak), jatorrizko prezioan Produktu guztiak eta prezioak kontsulta daitezke Durangokoazoka.eus webgunean.

**BERTSOA DIHARDU...**

- *Abenduaren 27an, igandea*
- *12:30ean Antzokian (Soraluze)*  
Eguraldiak laguntzen bada Zubi Nagusian
- *Sarrera 5 euro*  
Iratxon edo abenduaren 25a baino lehen [soraluzekobe@gmail.com](mailto:soraluzekobe@gmail.com) helbidera idatzita

ONINTZA Enbeita Maguregi

JOKIN Bergara Eguren

ANE Labaka Mayoz

AMAIA Iturriz Etxaniz


Galak jartzen: MAIALEN Bergara Eguren

Antolatzailea: Soraluzeko Bertsozaien Taldia

Laguntzaileak:

# "Askatasun handiagoa dute umeek hemen"

JABI HERNANDEZ EIBARTIK SORALUZERA



Jabi Hernandez (Eibar, 1976) 2002tik bizi da Soraluze. *Soraluze Opina eta Regalo, Cambio, Compro, Vendo* en Soraluze Facebookeko taldeen sortzailea da.

## Zelan bururatu zitzaizun talde horiek sortzea?

Herri guztietan zegoen halako zerbait. Herritarrei entzunez bururatu zitzaizidan, jendeak ipin zitzaizun kexuak, oharrak, abisuak... behar duena, zerbitzua emateko. *Regalo, Cambio...* taldea, berdin. Jendeak gauza asko ditu egoera onean oparitzeko edo saltzeko moduan eta hartara beste norbaitek merkeago eros ditzake.

## Eibartarra izan arren, badirudi ondo moldatzen zarela Soraluze...

Esango nuke baietz. Hasieran, arraroa egin zitzaizidan, baina umeak dituzunean, Eibar batean baino askoz erosoagoa da Soraluze moduko herri batean bizitzea. Hemen guztiok

elkar ezagutzen dugu, eta ume txikiak askatasun handiagoarekin ibil daitezke.

## Bildumazalea ere bazara, ezta?

Bai. Kromoena, Realarenak eta Eibarrenak, batik bat. Baita futbol taldeen pinak. Ni jaio baino lehenagoko kromoak ditut... Oso gustuko ditut, adibidez, 1972-73 denboraldiko kromoak, Paninik egin zituen lehenak; orduko Realarenak baditut. Batzuk sinatuta. Jokalari batekin, adibidez, adiskidetasun apur bat izan nuen, Esnaolarekin. 70eko hamarkadan Realeko alboko hegaleko jokalaria zen. Soraluze senideak ditu. Azken boladan, apur bat lagata dut bilduma, baina urtero ahalegintzen naiz Realaren eta Eibarren kromoak lortzen. Aste honetan, adibidez, Realarenak iritsi zaizkit 92-93, 90-91 eta 85-86koak. Beste bildumazale batzuekin aldatzen ditut.

1. Jabi Hernandez kalean.
2. Kromo-bilduma erakusten.
3. Berak sortutako Soraluze Opina Facebookeko orria erakusten.

# Tradizio berria

MARI DOMINGI ETA OLENTZEROREN TRADIZIOA INDARTZEKO EKIMENAREN KRONIKA

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO.

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI ETA PIL-PILEANEKO ARTXIBOA.

Aurten hogeitalau urte bete dira Pil-pileanek Olentzero herriko plazara atera zuenetik (25. aldia). 1996ko abenduaren 24an izan zen, arratsaldeko 17:30ean. Egun horretan, Olentzerok Soraluzeko umeen gutunak jaso zituen Plaza Berrian. Huraxe izan zen gerora urte luzetako ibilbide arrakastatsua ekarri duen ekimenaren lehen saioa.

Aurretik, Soraluzeko Ametsa Ikastolak ezagutarazia zuen Olentzeroren tradizioa herrian eta Urakapin kultur taldeak ere antolatu zituen zenbait ekimen puntual 80ko hamarkadan. Baina, 96an, oraindik ere, Olentzeroren tradizioak indar gutxi zuen herrian; giro politiko gatazkatsuak ez zuelako laguntzen euskal kutsuko tradizioak gizarte osora zabaltzen eta, batez ere, oraindik tradizio bihurtu gabeko ekimen berria zelako.

## 2004an, Mari Domingi

2004ra arte, abenduaren 24an Olentzerok bakarrik jasotzen zituen umeen gutunak, baina urte horretan, Euskal Herriko beste herri askotan bezala, lehen aldiz agertu zen Mari Domingi herriko plazan. Herrian, naturaltasun handiz onartu zen emakumezko pertsonaiaren figura berria; zalantzarik barik, onarpen



Aurten etxola apaintzen jardun duten zenbait herritar. Aurtengo gaia: jolasa. F. OREGI.

horretan asko lagundu zuen ordurako herriko ikastetxean egina zuen ibilbideak.

## 2007an, etxola plazan

2007an, beste osagai garrantzitsu bat gehitu zitzaion ekimenari: plazako etxola. Herritar batzuen ekimenez, ordura arte plazan jartzen zen pinua ordezkatu eta barruan bi pertsonaiak jaso zituen egurrezko etxola ezarri zen. Hasieran, kontrako iritzi zenbait jaso zituen arren, etxolak laster lortu zuen

## 1996AN EGIN ZEN GERORA URTE LUZETAKO IBILBIDE ARRAKASTATSUA EKARRI ZUEN SAIOA

onarpen zabala herritarren artean. Izan ere, urtez urte ezarri dizkioten osagaiek eta urtero muntaiari eman izan dioten izaera tematikoak ukatu ezineko xarma eta indarra eman diote ekimenari. Gainera, 2015etik, Udalaren eskariz, pinu txiki bat gehitzen zaio etxolari.

## 2008an, kalejira

2008an, Kukumixo aisialdi talde sortu berriak heldu zion Mari Domingi eta Olentzeroren ekimena antolatzeari eta horrek jauzi garrantzitsua suposatu zuen ekimenarentzat. Lehen aldiz antolatu ziren zubiko harrera ekitaldia eta kalejira. Gutunak batzearekin batera opariak banatzen ere hasi ziren. Gerora etorri ziren gurdia eta idiak, Galtzagorrien antzerkia, gutunak kiroldegiko



frontoian jasotzea, kantua, Amalurraren opariak umeendako liburua eta beste zenbait osagai. Guzti horien batura da gaur eguneko

**Gakoak: balioak eta elkarlana**

Tere Guenetxea eta Maite Quintanillak urte luzez dihardute ekimena antolatzen eta euren ustez bi dira urte guzti hauetan ekimenak izan duen bilakaera arrakastatsua ulertzeko gako nagusiak: "balioak eta elkarlana".  
 "Intentzio guztiarekin landu ditugu euskalduntasuna, feminismoa, kulturartekotasuna eta beste zenbait balio, eta horrekin batera, elkarlana bideratu dugu herriko eragile askorekin: musika eskola, dantza taldea, abesbatza, bertso eskola, gurasoen elkarte, Udala, brigadako langileak... Guztiei esker lortu dugu Soraluzen Mari Domingiren eta Olentzeroren tradizioa errotzea eta urtero sekulako ume mordoari ilusioa piztea. Gainera, belaunaldi berriak ere lotu dira antolakuntzara eta ekimenak osasun ona dauka".

**BALIOAK ETA ELKARLANA IZAN DIRA EKIMENAREN ARRAKASTA ULERTZEKO GAKOAK**



Olentzero 1997an gutunak jasotzen plazan. ARTXIBOKO IRUDIA.



Mari Domingi eta Olentzero 2003an gutunak jasotzen plazan. ARTXIBOKO IRUDIA.



Mari Domingi eta Olentzero 2018an kiroldegiko frontoian. ARTXIBOKO IRUDIA.

## ZORION AGURRAK



**Begoña Goenaga**  
Abenduaren 20an,  
84 urte. Zorionak  
urte askuan ama eta  
amama!! Segi beti  
bezain jator.



**Lander Rz**  
**Luzuriaga Lamas**  
Abenduaren 13an,  
16 urte. Zorionak  
guapo! Zein azkar  
pasatzen den  
denbora! Besarkada  
handi bat etxekoan  
partez.



**Zorionak hirurori!!**  
Etxekoan partetik.  
patxo eta  
besarkadak.



**Nahia**  
Abenduaren 6an, 6  
urte. Zorionak  
laztana! Segi gure  
etxeko bazter  
gutziak alaitzen!  
Asko maitxe zaitugu!

## JAIOBERRIAK



**Jare Ruiz Quintana**  
Abenduaren 11n jaio zen.



**Inar Murguzur**  
**Gabilondo**  
Abenduaren 5ean, 2  
urte. Etxekoan  
partez Zorionak  
Inartxo.



**Nagore eta Asier**  
Zorionak! Aurten ere  
gogotsu ospatuko  
ditugu. Patxo handi  
bana etxekoan  
partetik.



**Sara Muñoz eta**  
**Julen Muñoz**  
Azaroaren 3an 5  
urte eta abenduaren  
6an urte 1.  
Zorionak! Etxekoan  
partez.

**EL CONQUISTADOR DEL CARIBE**

**BIZI EZAZU ABENTURA**  
estreinaldia  
urtarrilak 11 astelehena

⇒ 2

## ESKELAK

## III. URTEURRENA

**Guillermo  
Alberdi Aramendi**

2017ko abenduaren 11an hil zen.

Izar berri bat piztu da Euskal Herriko zeruan.  
Beti gure bihotzean.

Etxekoak.

## ESKELA

**Angel  
Ruiz Flores**

2020ko azaroaren 7an hil zen, 46 urte zituela.

Bat egiten dugu zuen saminarekin. Jaso ezazue gure doluminik  
sentikorrena.

Plaentxi HLHlko ikasle, irakasle eta gurasoak.

## XX. URTEURRENA

**Eli  
Lakuesta Gorosabel**

2000ko abenduaren 24an hil zen.

Denbora, iraganetik gerora  
Denbora, badoia...  
Zure berbak entzuten, iragana  
Zure borroka jarraitzen, oraina  
Askatasuna, bizitzaren irakasgaia, zure maitxasuna, etorkizuna  
Gure sutonduan jarraitzen dozu, maitxe zaixugu Eli maitxia,  
aitxa, aitxitxa

Etxekoak.

## ESKELA

**Jose Maria  
Goenaga Benito**

2020ko abenduaren 5ean hil zen Zumarragan, 94 urte zituela.

Zure begi irribarretsuak eta alaitasuna beti gogoan.  
Maite zaitugu.

Goenaga senideak.

## HILDAKO ETA JAIOTAKOAK

**Hildakoak**

Ana Mari Oregi Arrieta

**Jaiotakoak**

Jare Ruiz Quintana

## OHARRAK

**Mendirako aseguruak**

2021eko mendi federazioko lizentziak egin edota berritzeko epea zabalik dago. Federazioko aseguruak estreinakoz egin edo 2020. urtekoan aldaketaren bat egin nahi duenak Mendi Taldeko kideekin jarri behar du harremanetan, soraluzekomenditaldea@gmail.com helbidera idatzita.

Aseguruak bere horretan mantendu nahi dutenei, lizentzia automatikoki berritu eta kuota kontu korrontetik kobratuko zaie.

Inaxio Ameztoi  
Ameztoi upategia, Getaria

# Etsebeak

**Bertakoak, kalitatezkoak, gureak.**

Orain, inoiz baino gehiago, erosi  
ditzagun gure baserritarren  
produktuak.

Erosi geurea,  
erosi Gipuzkoa

